

BAZENEKIEN CARITASEK ARLO HAUTAN GUZTIETAN DIHARDUELA?

Oinarrizko Jarduera Soziala:

Bazterketa egoeran bizi direlako, eta Administrazioaren babesa oraindik orokorra ez delako, baliabide ekonomiko nahiko ez duten pertsonen zein familiei laguntza ematea, oinarrizko beharrezkoak betetzeko arazoak dituztenean. Hiru proiekturen bidez:

Harrera: bazterketan bizi edo bizitzeko arriskutan diren pertsonen, informazioa, laguntza, orientazioa, laguntza ekonomikoa, e.a. eskaintzen die sare honek, Administrazioaren babes sozialerako laguntzetan edo lan merkatuan sartu arte.

Etxebizitza: etxebizitza sare honetan familiekin zein pertsonekin lan egiten da, gizarteratzean, prestakuntzan eta enpleguan, baita betiko etxebizitza bilaketan ere.

Arropa: irabazi asmorik gabeko Berohi kooperatibak arroparen bilketa eta birziklatzea sustatzen du. Horrela garapen jasagarria bultzatzen da, Ekorropa denden irekiera, baita zailtasunak dituzten pertsonentzako lanpostuen sorrera ere.

Familia-Gizarteratzea (FG):

Prestakuntza oinarrizko trebetasunetan, eta talde esperientzia eta familia sarearen eta komunitatearen laguntza indartzea honako hauen bidez:

- **Prestakuntza tailerrak:** eguneroko trebetasunak ikasteko eta gizarteratze maila altuagoa lortzeko lekuak, tailer desberdinen bidez.
- **Familia-Interbentzioak taldeka:** lana familiekin taldeka: Familia Heziketa Proiektua (FHP) ...
- **Familia-Interbentzio indibiduala:** familia-hezkuntza, hurbilketa, laguntza, jarraipena... familiekin.
- **Orientazio-balorazio-gainbegiratzea:** Caritasen beste programa batzuei laguntzea, familietan egiten diren interbentzioetarako prestakuntzan eta kasuen balorazioan.

Haurrak:

Egoera zailtan bizi diren haurren gaitasun pertsonalen, sozialen, heziketakoen, afektiboen eta familiarren laguntza, sustapena eta berreskurapena. Haurrengan eragina izan eta ez-egokitze edo babesik- eza sor dezaketen arrisku egoerak prebenitzen dira.

- **Laguntza sozio- eskolarrerako proiektuak :** haurrentzako, euren garapen fisikoan, ezaguerakoan, afektiboan, familiakoan eta sozialean, jarduera sozio- hezkuntzako burutuz. Arlo hauek baitira ongizate pertsonalaren arlo nagusiak.
- **Udako hiri-kolonia:** baloreen garapena bultzatzen dute baita aisialdi osasuntsua ere.

Adinekoak:

Zailtasun sozio- familiarak dituzten adinekoen bizi-kalitatea hobetu nahi du. Euren autonomia sustatzen du, euren inguruan gera daitezela laguntzen du, harreman sozialak pizten ditu, baliabide komunitarioak eskura ditzaten errazten du, eta euren zaharrak zaintzen dituzten familiei laguntza ematen die. Horretarako honako proiektu hauek garatzen dira:

- **Laguntza adinekoei:** adinekoek jasaten dituzten isolamendu edo/eta bakardade egoerak arindu.
- **"Egunon Etxea":** Gizarte bazterketan bizi diren adinekoei laguntza emateko proiektu osoa.
- **Animazio sozio- kulturala:** harreman sozialak pizteko eta laguntza pertsonalizatua emateko.
- **Arreta soziala** orientabiderako eta informazio sozialerako egiten diren eskabide indibiduali.

Laneratzea:

Bazterketa egoeran edo ahuldadean bizi direnak lan duina izan dezatela sustatzen du, gaitasun pertsonalak hobetzeko prozesuak errazten ditu eta gizarteratzeko baliabideak eta neurri sozialak garatzen ditu. Horretarako honako proiektu hauek garatzen dira:

Orientazioa eta lan bitartekaritza (Norabide) Arreta eta lan orientabidea, laneratze aukerak hobetzeko. Lan bitartekaritza eta lan poltsa. Lurraldeetako lan neurritzea animatzea. Azterketa lana eta lurralde ekimeneen proposamena eta Caritasen lan arloan dituen beste programa batzuei laguntza ematea. Lanbide Orientabiderako Euskal zerbitzuarekin elkarlanean aritzen den zentroa.

Lana izan aurreko heziketa tailerra: Lanari lotutako ohiturak eta oinarrizko hutsuneak berreskuratzea dute helburu, laneratze zailtasun bereziak dituzten kolektiboen laneratze aukerak hobetzeko.

Etxebizitzarik gabeko pertsonak:

Etxebizitzarik ez duten pertsonen bizitza duintzeko baliabideak ematea du helburu eta bazterketa arazo honen arrazoiengan eragin nahi du. Horretarako honako proiektu hauek garatzen dira:

Giltza: etxerik ez duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea gizarteratze prozesuan laguntza emanez. Gizarteratze prozesu horretan pertsona bera protagonista izatea erraztu eta ahalbidetzen du eta etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezala baita mantentzeko aukera ere.

Apostoliken zentroa: Eguneko zentro honetan jantoki soziala kudeatzen da eta etxerik ez duten pertsonen informazioa eta aholkularitza eskaintzen zaie, baita egoteko lekua, garbiketa zerbitzua (dutxa, garbitegia...), eta Internetarako sarbidea ere (lan bilaketa errazteko, familiakoekin harremanak errazteko...)...

Lurberri Etxea: Gizarteratzeko aukera gutxi eta babes beharrezko handia duten 45 eta 65 urte bitarteko pertsonentzako Egoitza. Egoiliar bakoitzaren prozesu pertsonalak babesten ditu eta bere bizi-kalitatea hobetzen saiatzen da.

Droga-mendetasunak:

Droga-mendetasuna duten pertsonen laguntza ematen die honakoen bidez:

Harrera pisuak: bizileku proiektuak egonaldi laburretarako, droga-mendetasuna duten pertsonen zuzenduak, euren mendetasuna tratatzen hasi nahi (Proiecto Hombre, Etorkintza Fundazioa, Osasun Mentalerako Zentroak...) baina arrakastaz burutzeko lagunduko dien inguru sozio- familiarra ez dutenean.

Gizarteratze pisuak: egonaldi laburretarako, droga-mendetasuna duten pertsonen zuzenduak, euren mendetasuna tratatzen eta gizarteratze prozesuan ari direnean, baina arrakastaz burutzeko lagunduko dien inguru sozio- familiarra ez dutenean.

Hontza: Droga ilegalak kontsumitzen diharduten eta gizarte bazterketa larria bizi dutenentzako gauearako harrera zentroa. Arriskuak eta mina gutxitzeko estrategian sartuta dago zentro hau.

Hiru programa garatzen ditu: Gauda ematea, sala irekia eta xiringa trukaketa. Zerbitzuak: takilak, aisialdirako gela, oinarritzko elikagaiak, garbitegia, duxak, erizaintzako oinarritzko zainketak eta laguntza sozio-hezkuntzakoak.

Eusko Jaurlaritzak Zerbitzu Sozialei ematen dien Dolores Ibarruri 1. saria irabazi zuen Hontzak 2004an (abendua).

Nazioarteko lankidetzak:

Sentsibilizazioa, parte-hartzea eta gizarte eta komunitatearen mobilizazioa sustatzen ditu Iparra eta Hegoaren arteko harreman bidezkoagoen alde. Iparra eta Hegoaren arteko harremanak izateko beste modu bat erakusten duten jarduerak bultzatzen ditu. Honakoetan egiten du lan:

Migrazioak: Iparra eta Hegoaren arteko migrazio prozesuek, harrera gizartean bazterketa soziala sor ez dezaten egiten du lan; interkulturalitate guneak sortzen ditu; eta ondorioz sor litezkeen egoera bidegabekoak salatzen ditu.

Bidezko merkataritza: Iparra eta Hegoaren arteko harreman komertzialak, bidezkoak eta zuzenak izan daitezen proposamena.

Hegoaldean sortutako ekimenez jaiotako kooperazio proiektuak babesten dira eta Bilboko Elizbarrutiko Misioekin eta Alboanekin batera **KIDENDA**, bidezko merkataritza proiektua sustatzen du.

Ekintza lokala lankidetzan: Iparra eta Hegoaren arteko bidegabeko harremanen buruz sentsibilizatzen du Garapenerako Hezkuntzaren bidez, parte-hartze komunitarioaren bidez eta prestakuntzaren bidez. Iparra- Hegoa taldeei laguntasuna ematen die.

Zerbitzu psikologikoa:

Laguntza psikoterapeutikoa bazterketa egoeran bizi direnei eta aholkularitza teknikoa eta laguntza psikologikoa Caritasen eragileei. Zerbitzuak: Aholkularitza kontsultak, prestakuntza psikologikorako ikastaroak, diagnosi sesioak eta terapia indibidualak bikoteentzako, familiarako eta taldeetarako, egoeraren arabera.

Zerbitzu juridikoa:

Sortu zaizkien arazo juridikoak direla eta Caritasera jotzen duten pertsonentzako zerbitzua.

Herritarren gizarteratzea oztopatzen duten eragozpen legalak gainditzea du helburu. Zerbitzuak: aholkularitza juridikoa, kasuen jarraipena eta laguntza teknikoa hainbat erakunde publikoren aurrean.

Ikerketa eta plangintza:

Interbentzioak hobetzeko prozesuak bultzatzen ditu, programen esku hainbat tresna jarrita, teknikoak zein beharrezko baliabide egokiak. Datuen informatizatzea eta kudeaketa koordinatzen du. Caritasen jardun osoaren Ebaluaketa-Programazio sistematikoa sustatzen du.

Animazio komunitarioa:

Egitura lokal parte-hartzaile eta eraginkorrek sortzen laguntzen du, baita bere eragileak sustatu ere, euren garapena bultzatuz eta lurraldeetan, eliz komunitatearen barruan eta dagokien inguru sozialaren barruan Caritasen misioa burutu dadin lagunduz.

Boluntariotza:

Caritas boluntarioz osatutako erakundea da, eta hauek proiektu guztietan eta erakundearen maila guztietan daude (Bizkaia osoko 2.000 pertsona inguruk hartzen dute parte Caritasen). Elkartasuna eta parte-hartze boluntarioaren kultura sustatzen dira. Boluntario izan nahi duten pertsonen harrera egiten zaie eta Caritasen banatutako talde berezi guztiei ematen zaie laguntza.

Prestakuntza:

Caritasen eragileen prestakuntza piztu, koordinatu eta bultzatzen du: boluntariotza, kontratatutako pertsonak, laguntzaileak,...Boluntario taldeen prestakuntza eskaerei erantzun nahi die, interbentzioa hobetzeko eta boluntariotza esperientzia aberasteko.

Sentsibilizazioa eta Komunikazioa:

Komunitatearen pizgarria den aldetik Caritasen izaera sustatzen du, gizartea sentsibilizatzen du bazterketa sozialari buruz eta bere arrazoi eta ondorioei buruz. Herrietako Sentsibilizazio taldeei laguntza ematen die erakundearen kanpainak zein kanpaina propioak edo Caritasen beste kanpaina batzuei laguntza emateko lanak burutzen dituztenean.